



# ELUR-EGUNETAKO PROTOKOLOA

JARRAIBIDE OROKORRAK



EUSKO JAURLARITZA

HEZKUNTZA SAILA



GOBIERNO VASCO

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN

# ELUR-EGUNETAKO JARDUERA PROTOKOLOA

## JARRAIBIDE OROKORRAK

Esku artean duzue Hezkuntza Sailaren izotz eta/edo elur-egunetako jarduera-protokoloa, ikasle/familia eta ikastetxeko langileei zuzendua.




1. Protokoloak hezkuntza arautuari eragiten dio eta 3 lurraldeetan aplikatzekoa da.
2. Protokoloaren abiapuntua: ikaslearen eta langilearen segurtasunak du lehentasuna.
3. Lurralde bakoitzeko ikastetxeetan tokian-tokiko erabakiak hartuko dira, jarraibide orokorrak kontuan hartuta eta dokumentu honetan proposatutako orientabideak oinarritzat hartuta.
4. Ikastetxe bat itxi beharko balitz, ixtearen erabakia ikastetxeko OOG-eko batzorde iraunkorrak hartuko du, zuzendaritzaren zehaztapenak jaso ondoren.



# ELUR-EGUNETAKO JARDUERA PROTOKOLOA

## JARRAIBIDE OROKORRAK

Egoera meteorologikoaren arabera (**5 egoera ezberdin identifikatu ditugu**), hainbat jarraibide biltzen ditugu.



1. Eguraldi txarrak behartuta, zuzendaritza-taldeak **eskolako autobus-zerbitzua etetea** erabakitzen badu.
2. Egoera atmosferikoak bat-batean okerrera egingo balu eta **irteera-ordua aurreratzen bada**.
3. Ikastetxeak ordutegi arruntarekin funtzionatzen du baina **sukaldeko pertsonala falta da**.
4. **Geltokiak aldatzea**, toki batzuetara iritsi ezinaren ondorioz.
5. **Hurrengo eguneko eskola-jarduera bertan behera uztea**, egoerak horrela **jokatzea** eskatzen duelako.

# ELUR-EGUNETAKO JARDUERA PROTOKOLOA

## JARRAIBIDE OROKORRAK

### 1. Eszenatokia



**Eguraldi txarrak behartuta, zuzendaritza-taldeak eskolako autobus-zerbitzua etetea erabakitzen badu.**

Goizeko lehen orduan erabaki horren berri emango zaie **familiei, mezu baten bidez** (komunikazioa bideratzeko kanal egokia zein den ikastetxeak erabakiko du).

Zuzendaritza garraio enpresarekin harremanetan jarriko da eta ikuskariaren bidez lurralde ordezkariari informatuko dio.

Lurralde bakoitzean dagokion **irratitari erabakiaren berri emango zaio**, berria zabal dezan. Informazio gehiago jaso ahal izango da autobus-laguntzaileen bidez.

Ikastetxea irekita badago, **familiek seme-alabak eraman ditzakete, eta haien ardurapean geratuko dira joan-etorriak.**

# ELUR-EGUNETAKO JARDUERA PROTOKOLOA

## JARRAIBIDE OROKORRAK

### 2. Eszenatokia



**Egoera atmosferikoak bat-batean okerrera egingo balu eta irteera-ordua aurreratzen bada.**

- › Zuzendaritzak lurralde-ordezkaria jakinaren gainean jarriko du, eta garraio enpresarekin harremanetan jarriko da.
- › Behin garraio enpresaren disponibilitatea ziurtatuta, familia guztiei komunikatuko zaie. Familiei zuzendutako komunikazio horretan jakinaraziko zaie beren seme-alabak ohiko geltokian hartu behar dituztela, eta baimena duen pertsonak jasoko ditu. Familiaren bat joango ez balitz, haurra ikastetxera itzuliko litzateke, eta han itxarongo luke arduraduna bere bila etorri arte.
- › Aurreko egoeran bezala, dagokion irratian, udalean edo ikastetxean bertan eskuratu ahal izango da informazio gehiago.

# ELUR-EGUNETAKO JARDUERA PROTOKOLOA

## JARRAIBIDE OROKORRAK

### 3. Eszenatokia



Ikastetxeak ordutegi arruntarekin funtzionatzen du baina **sukaldeko pertsonala falta da.**



A.

Garraiatutako haurrik izan ezean, ikastetxeak haurrak bazkaltzera etxera joan daitezten deitu ahal izango die familiei, edo bazkari zerbitzua catering bidez antolatu ahal izango du.

Garraiatutako ikasleen kasuan, zerbitzua catering bidez antolatuko da.

B.

# ELUR-EGUNETAKO JARDUERA PROTOKOLOA

## JARRAIBIDE OROKORRAK

### 4. Eszenatokia



**Geltokiak aldatzea,**  
toki batzuetara iritsi ezinaren ondorioz

Elurte handien kasuan, nahiz eta sare nagusia ibiltzeko moduan egon, baliteke herrietako sarbideak itxita egotea. Kasu horietan, egokitzen da ikasleei leku egoki batera laguntzea (horretarako geltoki berezi bat adostu), autobusak inongo arazorik gabe bertara iritsi daitezten.

# ELUR-EGUNETAKO JARDUERA PROTOKOLOA

## JARRAIBIDE OROKORRAK

### 5. Eszenatokia



**Hurrengo eguneko eskola-jarduera bertan behera uztea, egoerak horrela jokatzea eskatzen duelako.**

Ikastetxeak informazio-ohar bat emango die ikasle/familiei, Batzorde Iraunkorrek hartutako erabakiaren arrazoiak azaltzeko. Eta ondorengo pertsonak eta erakundeak telefonoz jasoko dute abisua:

Hezkuntza Lurralde Ordezkaritza,  
Ikuskaritza  
Garraio enpresak  
Sukalde eta jantokiko pertsonala  
Irakasleak  
Atezaina  
GEko Lehendakaria  
Udala  
(erabiltzen dituen bitartekoen bidez  
aditzera eman dezan: irratia,  
herrian banatutako iragarki-taulak...)

Ikastetxeak webgunea badu, bertan zabalduko du informazio-oharra. Eta ondorengo egunetan itxita egon behar badu, ikastetxearen ardura da bide beretik jakinaraztea.




# ELUR-EGUNETAKO JARDUERA PROTOKOLOA

## INFORMAZIO OSAGARRIA

A

Ikasleak autobusean daudenean, hots, ikastetxera iritsi aurretik eta autobusa irten ondoren, Larrialdietarako Zerbitzuak du horien ardura. Une horietan sor daitekeen edozein irregulartasunen aurrean, ikastetxeak 112 telefono zenbakiarekin harremanetan jarriko da, informazioa emateko eta nola jardun behar duen jakiteko.



# ELUR-EGUNETAKO JARDUERA PROTOKOLOA

## INFORMAZIO OSAGARRIA

Familiekin harremanetan errazago jarri ahal izateko, tutoreen eta ikastetxeko gainerako langileen laguntza izango dute. Komunikazio errazteko protokolo hau jarraitu daiteke:

**B-I)** Ikasgela bakoitzeko familien telefono zerrendak egin eta arduradun bat izendatzea. Gelako tutorea arduradun ikasle/familia horrekin jarriko da lehenbizi harremanetan, eta, geroago, komunikazioak kate gisa jarraituko du.

**B-II)** Familiaren batekin hitz egiteko arazorik izanez gero, zerrendan ondoren dagoen ikasle/familiarekin jarraituko da, eta, aurrekoari abisurik ezin izan zaiola eman jakinaraziko zaio ikastetxeari edo arduradunari.

**B-III)** Zerrendako azken ikasle/familiara mezua iritsita, guztiek informazioa jaso dutela jakinaraziko zaio ikastetxeari edo arduradunari, zerrenda osatzen duten guztiei egoeraren berri emateko prozedura erabili dela bermatzeko.



# ELUR-EGUNETAKO JARDUERA PROTOKOLOA

## INFORMAZIO OSAGARRIA

C

Ikastetxeak jasota eta eskura izan beharko lituzke protokoloa ongi betetzeko beharrezkoak diren telefonoak eta dokumentazioa.

- Zuzendaritza
- Gelako arduradunak
- Autobus laguntzaileak...

### Telefonoak

- Seme-alabak jasotzeko baimena emateko dokumentua, ohiko arduradunek ezingo balute
- Erabiliko diren komunikazio-kanalak...

### Dokumentazioa




# ELUR-EGUNETAKO JARDUERA PROTOKOLOA

## AZKEN OHARRA

Protokoloak bere helburua arrakastaz lor dezan, telefonoak beti prest izatea eta eguraldiaren aurreikuspeni kasu egitea gomendatzen dizuegu (irakasleak, familiak...).

Era berean, familiaren batek bere geltokira autobusa heltzeko zailtasuna izan dezakeela aurreikusiko balu (izotza, lur-jausiaren bat...), autobuseko laguntzaileari lehenbailehen abisatzea eskertuko genizueke.





Mila esker!

# ELUR-EGUNETAKO PROTOKOLOA

JARRAIBIDE OROKORRAK



EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN